

amarauna ▶ Argia

Argia astekariak jauzi ausarta egin du sarera

AZKEN ASTE hauetan, elkarriketa bilduma handi bat online ezarri ondoren, Durango-ko azoka irekitze-arekin zabaldu du ofizialki Argia astekariak bere webgune ofiziala.

Era honetako guneek bezala, etxearen aurkezpen labur bat aurki daiteke webgunean. Baina horrez gain, beste baliabide interesgarri batzuk ere badauzka. Lehenik eta behin, 1963-1996 urteak bitartean aldizkarian argitaratutako elkarriketen bilduma jarri dute sarean. Politikaren edo kulturaren ikuspegitik begiratuta, gure historiako azken urteetako altxor dokumental bat da lan hau; une honetan Interneten dagoen euskarazko lanik baliotsuena, seguruenik.

Euskal Herrian inor izan den edo den edonoren gainean informazioa dago hor. Gaika edo beste testu librearen araberako bilaketa eginik, segituan aurkitzen da informazio hori gainera. Joan den astean genioen bezala, elkarriketen

datubasean bilaketak egiteko tresna euskarara egokitua dago bilaketak egiteko, eta aldaera ortografikoetara ere moldatua dago -elkarriketa asko euskara batua baino lehenagokoak dira, jakina-. Esate baterako, "ilketa" bilatuz gero, "hilketetan" aipatzen den elkarriketa bat ere aurkituko dizu.

Elkarriketa multzo bilaketak egiteko tresna eta formato



Argia-ren webguneko sarrera orria.

Ametza zerbitzaria

Josu Landa eta Xabi Telleria dira Argia-ren montaje honen atzean dauden informatikaren jainuak. Landak Adur Software Products (ASP) enpresan lan egiten du eta Telleria Ametzagaina taldeko webmasterra da. Une honetan, Argia-ko gain beste enpresek ere prest edo martxan dituztelako Interneteko beren leihak, eta horiez enkargatzen da Telleria.

Enpresa talde honek Ametza zerbitzaria sortu du eta zenbait domeinu izen erregistratu ditu dagoeneko Interneten: **adur.com**, **ametz.com**, **argia.com**, **antza.com**... Ametza, berez, ez da izango ohiko zerbitzari bat: ez du lan egingo Internet zerbitzua eskaintzen partikularrei, taldeko enpresen kanporako proiektzioa ematen baizik. "Gure bideragarritasuna edukiaren bidezkoa izango da, ez Interneti berari dirua ateratzen konexioa eskainiz, Interneten bidez dirua ateratzen baizik", dio Josu Landak.

Argia-ren gunearen garapenez gain, ASPk bere softwarea Interneten bidez agertzeko interes berezia du, noski, programak direlako Interneten bidez gehien saltzen edo banatzen diren produktuak. Antza inprimategiak ere laster izango du bere gunea, eta aurrekontuak online eskatzeko sistema bat ere izango du. Horren bidez merkaturatutako abantailatxo bat izatea espero dute. Antzaren tresna hori oraindik ez dago sarean, baina sistemaren proba ikusi du EGUNKARIAK, eta oso itxura ona du.

Ahalegin honetan inbertsioak daude, eta arrisku maila bat ere hartu du Ametzagaina taldeak. Edozein modutan, Josu Landak dioen bezala, "erraminta behar duzu eskuetan, eta esperimintatu egin behar da, etekina ateratzen jakiteko".

berarekin CD-ROM batean ere kaleratu berri du Argia-k. Aste-karia parte den Ametzagaina taldeko beste enpresa batek, ASP-k, egin du datubase hau, bere tresnetako bat erabiliz: Kapsula delakoa. Euskarazko datubase dokumentalak eraikitze tresna berezi bat da hau, eta Argia-k laster erabiliko du bere webguneko hurrengo gehikuntza antolatzeke: aldizkariaren beraren edizio elektronikoa.

Hori martxo aldera iritsiko da, eta behin ale bat jarri ondoren, denak banan-banan bilduta geratuko dira kontsultatzeko moduko artxibo elektroniko batean. Are gehiago, 1992tik honako Argia guztiak ere online jarriko dituzte, testu hutsean bada ere.

Denda ere bai

Eduki horiek prestatzen dituzten bitartean, beste baliabide bat ere jarri dute sarean: Argia Denda. Aldizkariarekin egiten dituzten salmenta promozioen katalogo osoa jarri dute online (artelanak, liburuak eta abar, zenbait etxerekin dituzten akordioen arabera). Erosketa egiteko sistema sinple eta eroso bat jarri dute bisitariarentzat, eta alde horretatik diru sarrera batzuk ere espero dituzte.

Dendaren alor honetan eskaintza egin diote produktuak dituzten etxeei -IZ,

Didaktiker edo Susa, adibidez- jarri dituzten gaien promoziorako web orriak ere jartzeko. Hau da, katalogoko gai bakoitzak azalpen batzuekin bere orritxoan izan dezan. Orri horiek ez dituzte Argia-koek egingo, baina zerbitzarian doan jarriko dizkiote beste etxeei.

Oraingoan, Argia-ren eduki guztiak libre daude Interneten, eta martxoan aldizkaria ezartzen dutenean ere halaxe izango da printzipioz. Erosi beharrik ez, hortaz, irakurtzeko; baina hau ondo pentsatutako estrategia da. "Orain libre izateak ez du esan nahi beti egongo denik", dio ASP-ko Josu Landak. "Harpidedunak kentzen badizkio aldizkariari, ikusiko dugu. Baina orain garrantzitsuena jendeak ohitura hartzea da. Trabarik ez ikustea eta ohitzea". Gainera, sarrera kontrolatzeko erak badaude gaur egunean: harpidedunei emandako pasahitzak, adibidez, edo makina batetik egunean bost minututik gorako konexioa egiteko ezintasuna inplementatzea.

Web loturen aurkibide bat ere izango du urtarilean webguneak, Euskal Kulturaren Urtekarirako prestatu duten lan bat jarriko dutelako leihoelektronikoan.

▶ Argia astekaria
http://www.argia.com

▶ Ametzagaina taldea
http://www.ametz.com

TRESNAK

Bidaieen posta zerrenda euskalduna

Aitor Urangak, bidaiazeari buruzko webgune bat sortu zuen euskal internautak, bidaiei buruzko posta-zerrenda bat sortzea erabaki du. Printzipioz, euskaraz izango da eta moderatugabea. Sortzaileak iragarri duenez, zerrendan "bidaiekin erlazioa duen edozertaz hitze- gin daiteke: bidai kontakizunak, esperientziak, zalantzak, galderak, bidaia-arteak, harremanen sendotzea...". Bidaiei buruzko zerrenda honetan harpidetzeko Aitor Urangari egin eskaera, eta gero bidali eta jaso ahal izango dituzu mezuak zerrendatik.

▶ Aitor Uranga eta Bidaiak
http://www.geocities.com/TheTropics/9270
aitor@theoffice.net

▶ Bidaiek zerrenda (mezuak bidaltzeko)
bidaiek@coolist.com

Zerrendak doan

Urangak antolatu duen posta bidezko eztabaidagune hau (Bidaiak) posta-zerrendak doan eskaintzen dituen Coolist zerbitzuaren bidez antolatu ahal izan du. Baliabide polita da Coolistena: edozeinek has dezake bere zerrenda propioa. Hala ere, ez omen du beti nahi bezain ondo funtzionatzen: adi beraz.

▶ Coolist
http://www.coolist.com

WEBGUNEAK

Gune baten urtebetetzea

Pixkanaka haziz joan den gune euskaldun batek urtebete egin du: GeoNative, Geocities zerbitzariaren doako web espazioan kokatutako proiektu bat. Eremu urriko hizkuntzen geografiari dedikatutako gunea da hau, eta beste hizkuntza gutxiagotu batzuen inguruan informazioa dakarren euskal gune bakane-takoa da hau, eta 96ko abenduan 15 hizkuntza ageri bazi-ren ere, orain 99 daude. Mapak, diseinu txukunago bat, eta munduko idazkera desberdinak transliteratzeko eta Interneten agertarazteko sistema baten berri dakarren atala ere badauka. Hainbeste hazi da gune hau non Geocitiesek doan eskaintako web espazioa (bi mega) gainditu egin duen eta beste gune bat okupatu behar izan duen. Nolanahi ere, aste honetan iragarri du Geocitiesek bere doako espazioa hiru megatara handitzen duela.

▶ GeoNative
http://geonative.home.ml.org
http://www.geocities.com/Athens/9479